


iraileko paperak





Larunbata, IRAILAREN 28a

10:00 - 11:30 *Ipar Euskal Herriko poesia:* Katixa Dolhare-Zaldunbide.

📍 Sanoki gelan, Itsasuko Gaineko Plazan.

12:00 - 13:30 *Poesia irakurraldia:* Anjel Erro, Maddi Sarasua eta Harkaitz Cano.

Musika animazioa: Pantxix Bidart.

📍 Itsasuko Gaineko Plazan.

Bazkaria

16:30 - 18:30 *Munduko poesia kaierak:*

Hiru itzultzaile eta tokiko bost irakurlere (Ikastola, AEK, irakurle taldea).

📍 Emanaldi ibiltaria, Gaineko Plazaren eta Elizaldearen arteko bidean barna.

Afaria (taloak eta edariak) 📍 Elizaldean.

20:30 - 22:30 *Kontzertua:* Maddi Oihenart & Jérémie Garat (EH) eta Alidé Sans (Aran ibarra).

📍 Itsasuko elizan.

Igandea, IRAILAREN 29a

10:00 - 11:30 *Mintzaldia:* Sergi Javaloyes. Herrialde gonbidatua: Okzitania.

📍 Itsasuko hartzaindegian, Elizaldean.

12:00 - 13:00 *Irakurraldi elebiduna:* (IB euskaraz) Aurelia Lassaca.

Musika animazioa: Coralie Nazabal.

📍 Itsasuko hartzaindegian, Elizaldean.

13:30 *Zintzur bustitzea,* Itsasuko Herriko Etxeak eskainia.

📍 Itsasuko hartzaindegian, Elizaldean.

Mila esker *IRAILEKOAK Poesia Jaialdiaren* 2. edizioa Itsasun modurik politenean antolatzen lagundu diguzuenei: Itsasuko Herriko Etxea, Itsasuko Ikastolako gurasoak, Gau Eskola, Irakurle Taldea, merkatariak...

Mila esker Christine Etchevers margolariari, *Iraileko Paperak* sortzeko erakutsi duen eskuzabaltasunagatik.

Mila esker liburuxkako sarrerak eta itzulpenak egin dituen Itxaro Bordari.



Irailean, *Irailekoak*

EUSKALTZAINDIAK, literaturari dion atxikimendua adierazte aldera, poesiari eskainitako asteburu bat antolatu du. Lehen edizioa Lekeition (Bizkaia) antolatu genuen 2023an. Bigarrena, aurten, Itsasun iragarri dugu.

Luzerako egitasmoa izatea nahi genuke, Euskal Herri osoarentzat, poesiak bere toki-denborak izan ditzan udazkenaren hasieran gure artean, bestelako ekintzekiko lehian sartu gabe, orotariko literatura jardunaldien egutegia osatuz baizik.

IRAILEKOAK, irailean. Espero dugu saio hau ohiturazko hitzordu bihurtzea literaturazaleentzat, topaldi atsegin eta interesgarri. Gonbit honek ez dauka mugaegunik.

Zertarako **IRAILEKOAK**?

Azken urteotan, euskal poesiak hartu dituen bideei buruz hausnartzeko; poeten lana zehatzago ezagutzen laguntzeko; belaunaldi zahar eta gazteagoen ahotsak eta adierazkerak erkatzeko; harremanak zabaldu eta solasgune berriak sortzeko.

Eta zergatik poesia?

Poesiak hitzen edertasuna agerian uzten duelako; galderak egiten dizkigulako, eta erantzun ere bai; bideak zabaltzen dituelako gure ni sakonaren eta munduaren artean; geure burua ulertzen laguntzen digulako; geure burua nahasteko balio duelako; memoria jasotzen duelako; nor garen gogorarazten digulako; gaitzak ahazten eta beldurra menderatzen laguntzen digulako; kontzientziak astintzen dituelako; sentsazioak pizten dituelako; egia bakarrik ez dagoela erakusten digulako; errealitatearen konplexutasuna aurkezten digulako; mugariak ipintzen dizkiolako hutsera jotzen ari den artaldeari; azalkeari kontra egiten diolako; ezer ez delako eta, aldi berean, dena biltzen duelako; eskatzen ez duelako eta bai ematen; gogoko dugulako... Eta batzuetan gorroto; poesia... poesia delako.

Margolanak: Christine Etchevers.



Mizel Hiribarren

Itsasuko auzapeza

Artzain eta itzainen lurraldea izan da betidanik Lapurdiko Itsasu, bere mendi malkar eta erreka biziak.

Erreka bazterreko latsagien harriek etxekandreen euskarazko solas marmarikaren oihartzuna. Mendi gainetako lepoak elkargune Nafarroa-Lapurdiko mugaz bi alderdietako artzaintzat, euskara berdina zariotela.

Aro berrian, ikastolako haurrek pilota plazetan elgarri jolas eta irri gure hizkuntzan. Auzo bezain-bat plaza bada gure herrian, eta plaza guziek zaindu nahi dituzte pilota eta euskara, mutikoentzat eta neskoentzat.

Irailekoek ekarriko dute lehen aldiz Lekeitio itsas bazterretik olerkiaren kresala.

Ibaietako harkaitzak, oihan hezeetako zuhaitzak, mendi gorenako borobil alferra, herritar eta atzerri-tarren gogo bihotzak, gaziz eta gozoz estaliko ditu kresalak. Minez, haserrez, atseginez, alaitasunez begiratuko zaio aurtengo udazkenean inguratzen gaituen natura guziari, baita askatzen edo itotzen gaituen hurbil ala urruneko jendarteari.

Ongi etorri Itsasurat 2024ko Irailekoei. Harrotasunez hartzen zaituztegu. Agian, gure errekek, harriek eta herritarrek eskainiko dizute oihartzunik sentiko-rrena. Gure plazak hor dituzue lehengo eta biharko olerki zahar eta berrien portu.

Katixa Dolhare-Zaldunbide

(Ezpeleta, 1982) literatura irakasle da. Goi mailako ikasketak Bordeleko Montaigne Lizeoan eta Bordeaux-Montaigne Unibertsitatean egin ditu. Literaturan agregatua eta doktore da. Hainbat urtez Bigarren Hezkuntzan irakasle izan da, hastapenean Bordele eta Parisko bazterretan eta gero Ipar Euskal Herrian. Denbora osoz ari da orain Bordeaux-Montaigne Unibertsitatean, literatura irakasle Euskal Ikasketak sailean. Poesiaren gustua eman zioten lehenik aita-amek, bereziki aitak, eta ondotik irakasle bikain batzuek.



Ipar Euskal Herriko poesiaren argiak eta itzalak, 1940tik hona

Bigarren Mundu Gerlatik landako Iparraldeko poesiaren aurkezpen orokor bat bilatu nahiko lukeenak nekez atzeman lezake holakorik. Jon Kortazarrek zuzendu *Egungo euskal poesiaren historia*, adibidez (Kortazar 2009), Iparraldeko zortzi izen baizik ez dira aipu: Iratzeder, Aurelia Arkotxa, Itxaro Borda, Henriette Aire, Auxtin Zamora, Jon Casenave, Jakes Ahamendaburu, Ur Apalategi. *Maiatz* aldizkari literarioa izendatua da, eta bi olerkariaren liburu bana dira sakonki barnatuak: Alvaro Rabellik Itxaro Bordaren lehen olerki bilduma aztertzen du (*Bizitza nola badoan*, 1984), eta Miren Billelabeitiak Aurelia Arkotxaren lehen argitalpena, *Atari ahantziak* (1993). Baina, «non hago, zer larretan, Iparraldeko poeta?», pentsa lezake tokikoa ez den poesiazaleak. Tematzen balitz, beharko luke lehenik Interneteko Armiarma sarean bilatu poeta izen gehiago, Literaturaren Zubitegian eta «basquepoetry, euskal poesiaren ataria»-n. Julen Urkizaren Bertso eta olerkien hemeroteka baliosa ere kontsulta lezake. Joan liteke, ondotik, liburutegietan barreiatuak diren aleen xerka. Gero, denbora harturik, *Maiatz* aldizkariaren laurogei bat zenbakiak hostokatu beharko lituzke, bai eta Hatsa elkarteak plazaratu *Hatsaren poesia* deitu

hogeita sei bildumak ere. Hondarrean, Iparraldeko kulturaren memoria bizia daukatenak galdekatu beharko lituzke, eta liburuez haratago poesia gorde lezaketen euskarri ezberdinen gibeletik ibili.

Gure bilatzailea ohartuko litzateke, orduan, bere miaketak bideratu arau, nekez bereiz daitezkeela poesia, kantagintza eta bertsogintza: holako bertso-lariaren koblek edo halako kantariaren konposizioek balio poetiko handia daukate; beste poeta horrek olerkiak idatzi zituen eta hauek kantu bihurtu ziren, berak ezarri baitzieten doinua, musikari baten egitasmoan sartzen baitziren ala ustekabea, beren bidea horrela egin baitzuten... Nola mugatu, nola sailkatu, Iparraldeko poesiagintza? Nola ezberdindu olerki idatzia, olerki kantatua, bertso poetikoa? Autorearen proiektuaren arabera? Intimitatearen alorrean egon diren ala jendartean zabaldu diren kriterioen arabera? Xedetan den hartzailearen kultura mailaren arabera? Testuaren «erraztasun» edo «zailtasun» intelektualaren arabera? Testuaren ibilbidearen arabera? Irizpide estetiko, moral edo sozialen arabera?

Zentzu handirik gabeko buruhauste horietan ito gabe, ukatzen dutelako Ipar Euskal Herriko lirika-ren historia berezia, gure olerkizaleak poesiatzat hartuko lituzke, naski, eta sinpleki, erritmo eta soinuekin jostatzen diren testu guziak, irudiak eta emozioak sorrarazten dituzten ber. Eta, azkenean, lan horretatik lekora, ez lituzke zortzi baina hirurogeita hamar bat izen zerrendatuko, % 60 gizon, eta % 40 emazte, gutti gorabehera.

Artikulu honetan, saiatuko gara holako ikerlanak ukan lezakeen emaitza eskaintzera, franko xumeki. Zonbait orrialdez Ipar Euskal Herrian azken laurogeita bost urteetan hazi den poesiaren azterketa sakonik osatu ezinean, panorama orokor bat bederen aurkeztuko dugu, olerkari nagusi zein ezezagunak erakarriz, eta haien lanaz bi hitz erranez.

Poesiaren ikuspegi zabala eman nahi izan duten batzuek, beste alor kulturaletan, erabili izan dute konstelazioaren metafora, poeta anitzek okupatu espazioa itxuratzeko. Philippe Jaccottet-ek, adibidez, gustatzen zitzaizkion bi bilduma pertsonal argitaratu zituen, honelako izenburuak jarritz: *Une constellation, tout près* (Jaccottet 2002) eta *D'autres astres, plus loin, épars* (Jaccottet 2005). Baina zeru urruneko izarrak baino, nahiago dut, gure olerkari-rien testuak aipatzerakoan, lur hurbileko loreen metafora, lore-bildumarena (antologia bat, besterik ez baita). Ipar lurraldeko lore guziak ez baititzaket hemen bildu, goazen halere ikustera nork, non eta nola erein dituen.

Ipar Euskal Herriko olerkarietan, badira biziki emankorrek, gogo-bihotz muineraino eta oroz gainetik Poetak direnak. Horiek, egiazko obra osatu dute, liburu (edo testu) kantitate eta kualitate estetikoari begira. Haien mundu berezian murgil daiteke irakurlea; haien ekoizpen poetikoaren aniztasuna edo bilakaera azter lezake ikerlariak; haien lana eredugarritzat erakutsi, irakasleak. Olerkari horiek liliz betetako baratze zabalak eskaintzen dizkigute, non ibil daitekeen hamaika kolore, forma, usain, erritmo, musika, erro, abar, landare eta fruitu gozatuz. Badira ere produkzio oparorik egin ez duten poetak, baratze joritan ez, baina pentze edo larre loredunetara eramaten gaituztenak, lilura eta atsegina sorraraziz han-hemenka, noizbehinka, ustekabeaz bezala.

Ez nuke, artikulu honetan, hierarkia epailerik adierazi nahi bi motatako idazle horien artean. Ene xedea izanen da, besterik gabe, azaltzea Iparraldeko olerkariak zoin diren gure aro garaikidean, zer nolako testuak idatzi dituzten, zoin leku duten Iparraldeko literaturan eta jendearen oroimenean. *Maiatzeko* erredaktoreek idatzi zuten 2015eko azaroko 61. zenbakian, «poeta guziak [...] ahazduraren bidean sart[zen]» direla: lan honetan, ahal bezainbat ahanztura horretatik babestu nahiko nituzke, bai poeta baratzezainak, bai poeta sorozainak edo larrezainak.

“

Olerkari horiek liliz
betetako baratze zabalak
eskaintzen dizkigute

”

Narrazio eta eleberri alorrean baino zailago da, oraino, poesia mugimendu literariotan edo korrontetan sailkatzea: egile bakoitzak mundu intimo berezia irekitzen digu, eta artifiziala litzateke talde homogeenak arbitrarioki eraikitzea. Julien Gracq idazle frantsesak zioen zorion handia zitzaiola autore baten unibertsoan sartzea —«Si je pousse la porte d'un livre de Beyle, j'entre en Stendhalie, comme je rejoindrais une maison de vacances» (Gracq, 1980)—. Berdin erran genezake poeta banaren munduaz: sarrarazten gaituzte bata eta besteak beren etxean, beren etxe- (edo *eko*-)sisteman, beren «-baitan», beren «-enean» —Iratzederrek “Iratzederbaitan”, Erdozaintzi-Etxartek, Erdozaintzi-Etxartenean.

Halere, bana-bana ezin aurkeztu daitezkeelako hamarnaka olerkari, aipatuko ditut multzoka, nahiz eta bakoitzaren berezitasunak azpimarratuko ditudan: lehenik, baratzezainak, zointarik anitz klasiko bilakatu diren, poesiazaleen apalategietan, bihotzean, memorian, ezpainetan daudenak; ondotik, sorozainak edo larrezainak lehenbizikoen atzean egonez Iparraldeko poesiaren osaketan parte hartzen dutenak ere bai.

Nahitara ez dut hemen aipatuko Itxaro Bordaren obra. Hau dugu poeta emankorretan emankorrena:

lumatik jalgitzen zaizkio olerkiak, ura iturritik bezala. Baratzeta ez, lurralde oso bat sortu du, bere argi eta iluntasunekin, bere azal eta sakontasunarekin, gainerateko loreak itzalean bezala utziz. Askatasun, trebetasun eta umore zoragarri azaltzen ditu sentimenduen prekaritatea, bakartasun etsigarria, bizirauteko salbabidea den maitasuna. Itxaro Bordaren obra duinki aztertzeke, bizpahiru tesi

beharko lirateke eta ez zonbait paragrafo, hemen gehienik eskaini nezakeen (baina eskainiko ez dudana) bezala.

Bururatzeko, hainbat galderari laburki erantzuten saiatuko naiz, periferiaren periferian ezkutatua den Iparraldeko poesiaren norabidea marraztuz.



1. Ahots liriko nagusiak

Iparraldeko lirika garaikidea hasten da, ene ustez, **Xalbadorren** (1920-1976) bertsoekin. Bertsolaritza idatzia eta olerkigintza arte berdina dira, Fernando Aireren ustez:

«Badira gizonak, beren erran beharrak gogoratu arau jendearen aintzinean goraki kantatu behar dituztenak; bertze batzu aldiz, munduari edo Jainkoari bakartasunean mintzo zaizkionak. Hauek, enetzat, pertsu idazleak edo kantu egileak dira, eta zonbaitek deitzen dituzte olerkariak».

(Xalbador 1976: 65-66)

Xalbador, kasu horretan, olerkaria izan zen, Etxahun Iruri (1908-1979), Berjinanto (1912-1987),

Larreko (1924-2013) eta beste hainbat bezala. Gaietan, Xalbadorrek uztartu zituen etxea, etxe-koak, euskara, herria; tonu errealista, lirika ezkor hunkigarriarekin nahasi zuen, etorkizunerako itxaropena Jainkoaren baitan ezarritik.

Burua gordez han hasi nintzan
berriz Jaunari lo galdez,
bainan amentsa nuen bilatzen,
ez nindabilan logalez;
amodioa, gaur egun ere hoin sendo bada ahalez,
bihotzez bihotz mundu guzia kurri dezala hegalez,
tristura eta herra lur pean sar ditene haren ahalez,
sar ditene haren ahalez.

(«Amentsetan», Xalbador 1976: 322)

Xalbadorren adinkidea izan da **Xabier Iratzeder** (Jean Diharce) fraide beneditarra (1920-2008), poeta oparoa, hamabost bat olerki bildumekin. Munduaren edertasun eta misterioaz liluraturik, dena zaio bertsogai, Iratzederri, dena kantagai:

Nahi nintuzke denak pertsutan ezarri.
Zuhaitz azpi batean aurkitu orduko,
Begiak zuri, xutik, pertsuka naiz ari.
[...]
Hori gabe bizia hain da hits, hain pisu...
Doi bat airatu gabe egun bat ez nauke,
Hain dut airaldi hoitan gogoia dohatsu.

(«Pertsutan», Iratzeder 1983: 23)

Bere testuetan, gehienik aipatzen duen gaia da natura, bereziki hain maite dituen itsasoa eta mendia, fede kartsuarekin lotuz.

Baina etxekoez ere ari da, gai sozialez, gizarteaz, euskaraz, gazteriaz, herriaz.

Kolpatu hori,
dena zauri
den hil-hurren hori
euskaldungoa dugu orai.
Badu zauri,
badu etsai.
Nor du alde?
betitik eta betiko
nor du orai
bihotz-odol emaiteraino
adiskide?

(«Berrogoita hameka urte...», Iratzeder 2000: 57)

“

Nor du orai
bihotz-odol emaiteraino
adiskide?

”

Intimitatean senditzen dituen pozak, dudak eta penak umilki eta manera hunkigarritz eskaintzen ditu Iratzederrek. Metrikan aniztasuna eta joko atsegina erakusten du, erabiliz bai ohiko formak, bai forma berritzaileak. Itxura sinpleko testuak ehuntzen ditu, zinez atseginak eta gozagarriak. Hortaz, bat nator Jean-Louis Davantek idatzi duenarekin:

«Aditu batzuen arabera, kantua gauza bat da, eta poesia bertze bat, arras bertzelakoa. Iratzederrek ez ditu bereizten, nik ere ez [...] Beti aditu zenbaiten arabera, olerki herrikoia –ala herritarra?– eta goiko poesia bereizi behar laitezke. Iratzederrengan ez dut holako hausturarik nabaritzen. [...] Batzuen ustez orain, olerkia hetsiago, misteriotsuago, ulergaitzago eta hobe da, konprenitzea bekatu balitz bezala. Ez dut ikusten zergatik eta zertako holakoa izan behar lukeen».

(*Maiatz*, 61, 2015eko azaroa: 94)

Sinple, natural, herritar eta ulergarri idazteak ez du erran nahi lanik ez duela hartzen Iratzederrek. Ezen, batek daki anitzez errazagoa dela korapilatsu eta ilun idaztea, leun eta argi baino.

Gaietan, Iratzederren olerkiak dira, gehienetan, esperantzaz beteak, airosak eta freskoak: goibeltasunari uko egiten diote, eta fede handia erakusten dute edertasuna, bizia, gazteria, etorkizuna eta Jainkoaren baitan.



Xalbador eta Iratzederren belaunaldi berekoa dugu, ondotik, **Mixel Labeguerie** (1921-1980), kantagintza arraberritu zuen poeta abertzalea. Ez digu holako obra nasairik utzi, baina haren hogeita hiru kantuak osoki errotu dira gure kultura herritarrean. Mixel Itzainak argitaratu zituen 1999an, beste olerki batzuekin batera (Itzaina 1999). Hau bereizi dugu, besteak beste:

Aberriaren askatasunaz profetak mintzo denetan,
Zauri guzien erremedioa dadukate hitz batean.

Nik ere nahi dut Askatasuna,
Izaitekotan gizonarena.

Xori txikiak, kaiolan denak, askatasuna zertako?
Libratu eta erortzen bada arranoaren meneko!

Euskal Herrian ere badugu mendietako arrano,
Euskal xoriak daduzkatenak beren menean esklabo.

(Itzaina 1999: 95)

Natura, herria, euskara, euskaltasuna, esperantza kartsuki goraipatu zuten aitzineko hiru poeten ondotik datorkigu **Jon Mirande** (1925-1972), garrantz eta etsikor.

Ai! goragotik ethorri-haizeek
ailezate jo ene landetan
et' eiharraraz 'itxaropena'
izena duen zithal-lili haur!

(«Lili bat», Mirande 1984: 78)

Darabilzkien gaiek, izua eta nazka eragiten dute, baina haren hizkuntza erabiltzeko trebetasunak miresmena sorrarazten du. Poeta polemiko bezain patetikoa dugu, Mirande zirrargarria, gorroto ziola mundu guziari, eta lehen-lehenik bere buruari.

Et' ezpainetan zure ezpaina,
Potka... Orduan atzarri naiz:
Nihaur ninduzun berriz ere...
Zertako, ai, atzarri naiz!

(«Ametsetarik», Mirande 1984: 74)

«Haurr ilorrtu[z]» eta «maitagailu[z]» («Paranoia», Mirande 1984: 122), edo «paiderasten maitarzun minkorr[ez]» («Larunbat arrats», Mirande 1984: 123) ari zela Mirande, haurrenganako goxotasuna eta ardura adierazi digu **Marijane Minaberrik** (1926-2017) bere olerkietan. Maiz bereizten dira helduen literatura eta haur eta gazteen literatura, baina ene ustez, horrek ez du, funtsean, zentzu handirik, dena literatura baita. Natxo de Feliperekin batera, aitor diezaiogun, bada, Marijane Minaberriri, zinezko poeta izatea, hain da jostakina erritmo eta soinuekin. Gainera, zinez hunkigarria izan daiteke:

Maite dut gauaren bakea,
Lagun esku baten beroa,
Izar ihintzaren freskoa
Amak haurrari egiten
Duen irriño ezia,
Zeru urdinean den
Goibel arin xuria,
Idortzen ari den
Belarraren usaina,
Eta uda euri ondoan
Lurraren hats beroa,
Maite dut bizia.

(Minaberri 2019: 184)



Jon Miranderen adiskide izan zen **Txomin Peillenek** (1932-2022) ere olerkiak idatzi zituen. Ariketa estilistikoak edo poesia intelektualistak dira, gehienetan: gai tradizional bat edo baldintza literario bat hautatu eta, autoreak testu landu eta eruditoak proposatzen dizkigu. Ohargarriak dira testu exotikoak, orientalistak, hala nola Abd El Kaderren omenezko testu epikoak.

Bi lagunek, hamar lagunek
ehun lagunek
hamar mila mudjahidek
Saidi Abd El Kader emira
leialki hire deiari erantzun:
Djihad!
Djihad!
Kanpora Rumi kristauak
Abdaka El Kebir!
Allah Akbar!

(«Abd El Kader», Peillen 2003: 61)

1930eko hamarkada horretan sortu zen **Manex Erdozaintzi-Etxart** (1934-1984), Iparraldeko maisu handia. Bizi osoan idatzi zuen poesia, euskara, euskaltasuna eta herria aipatuz, lehenik erbestea arintzeko, gero jendearen kontzientzia pizteko. Itxaro Bordak idatzi bezala, ahots liriko berezia atzeman zuen Iparraldeko poesia erlijiosoa eta Hegoaldeko poesia abertzale hutsaren artean (*Maiatz* 1995). Haren poesia libreak berehala harrapatzen du irakurlearen bihotza, eta nahi duen lekura eramaten, goxoki bezain segurki. Etorkizunerantz konfiantzaz begiratzen du, inozenteki ez baina baikorki, mundu berri bat amestuz.

Manex Erdozaintzi-Etxarten hainbat olerki musikatua izan dira, eta kultura herritarrean sustraitu dira. Poeta eredugarria izan da, kulturalki eragile, gazte laguntzaile. Gogo-bihotzez engaiatua da jendartearen, Agurtzane Ortiz Lopetegik erakutsi bezala bere tesian lehenik, eta ondotik Manex Erdozaintzi-Etxart, herriaren poeta liburuan.

Ikusten dituztan gauzak
Senditzen dituztan gauzak
Jastatzen dituztan gauzak...
ederrak, gozoak, onak direla
Sinesten dut.

Entzuten dituztan hotsak
bereizten dituztan soinuak:
abereen garrasiak, gizaki ororen mintzoak
kantatzen diren abestiak
biziaren mugimendu daldara izaki orotan...
amiagarriak, atsegingarriak, pozgarriak direla
Sinesten dut.

Biziaren mugimendu hots desberdina
Izaki eta gizaki guzietan
hunkigarria, zoragarria, lilluragarria dela
Sinesten dut.

Loreak loretze betean
fruituak fruitutze betean
zuhaitz eta harri eta burdin
lurraren lurtatze mugimendu daldaran
mendiak eta itsasoak
izaki eta gizaki guziak
izadiaren ekilibrio betean iraunen dutenean...
Sinesten dut
gizonaren zorientze betean.

Esperantzak
gizon guzien
izerdiaren izerdiaz
burrukaren burrukaz
mundu berri bat
erdiko duenean...
Sinesten dut
gizonaren zuzentasun batean
gizonaren askatasun betean
gizonaren amodio betean.

Loreen loretze betean
Fruituen fruitutze batean
lurraren lurtatze mugimendu daldaran
izaki eta gizaki guziak
irautearen betean dantzatuko direnen...
Sinesten dut
hastapeneko, gaurko eta betirako
Amodio haren Izenean
eta, berriz ere, deituko diot:
Biziaren Jaun Goikoa
hastapenetik betirakoa...
Sinesten dut.

(Erdozaintzi-Etxart 1994: 64-65)

Poeta gisa ez da hain ezaguna **Jean-Louis Davant** (1935) antzerki-, pastoral-, saiakera-egilea. Bizkitartean, zazpi olerki edo bertso bilduma baditu argitaratuak. Itxura naturala duten testuek izugarriko barnakortasun eta erudizioa erakusten dute. Historiaz, herriaz, euskalduntasunaz, euskaraz, izadiaz, gure figura eredugarriez ari zaigu, alegia deus ez bezala, umore finarekin eta metrika biziki zainduarekin, ohiko formak, forma jasoak (hamalauduna) edo forma libreak aldizkatuz.

Txibuli, txibula
Ozpina, eztia
Martxoko txirula
Usu da bustia.

Tzipisti, tzapasta
Handituz dabila
Hodei bat kiskila
Kazkabarra bastan.

Uharren artetik
Ekia kukuxka
Neguen atetik
Uda kuxka-kuxka.

Irria, negarra
Zeruan behera
Martxoan ezteiak
Maiz ditu axeriak.

Txoria txiruli
Txirulan iduri
Sasian kantari
Han bera dantzari.

Ez dago bakarrik
Aldaxka hartarik
Lanean isila
Sortu da muskila.

Apexa xixari
Negarrez irria
Ekiaz euria
Martxoan ernari.

(«Bedatsea», Davant 2003: 9-10)



Eñaut Etxamendi (1935) Jean-Louis Davanten adinkidea da. Irakasle, ikerlari eta, bereziki, kantaria da Eñaut Larralde adiskidearekin ibiltzen zela. Hainbat ikasle eta entzule belaunaldi sakonki markatu ditu. Haren testuak engaiatuak eta umoretsuak dira, bai eta amultsutasun handikoak ere. Ipar Euskal Herriaren kontzientzia eta memoria kolektiboaren akuilatzaile da, dudarik gabe. Hitzekin libreki jostatzen da, ñabardurak maisuki baliatuz, lirika herritar hunkigarria erabiliz. Biziki landua den poesia sortzen du, itxuraz simple eta ulerterraza baldin bada ere: poesia hurbila bezain zaindua.

Tiki taka tiki taka ibilki da astottua goizik
Bidez bide hinki hanka doa elizarako bidetik
Tinki tinki soka dauka amañok eskuetan tinkirik
Astoa so bepazterka ez zakion zaio koka
Bazterretako laparretarik
Biak biak krika krika jausten ziren gaztaiña
maldatik
Meza saindurat otoizka
Biak biak tiki taka tiki taka tiki taka.

(Etxamendi 2013: 30)

Manex Pagola (1941-2018) olerkari kantaria izan zen hura ere. Manera eraginkorrez bideratu zituen abertzaletasuna eta salaketa politiko-sozialak. Zuzengabekeriaren kontra oldartzera deitzen zuen, aberria eta justizia sozialaren alde borrokatzera, umorea eta lirika hunkigarria aldizkatuz. Manex Pagolak ere Ipar Euskal Herriko kontzientzia piztu nahi izan zuen, eta eragin handia izan zuen jendearengan. Beti ttipien alde ezartzen zen, eta herri jakitatea handi-mandien kulturaren heinean ikusten zuen. Nahiz eta errealitate latza begi bistan atxiki, bere testuek esperantza emaile izan nahi zuten, bereziki gazteria gogoan.

Bihar Herri huntan zorion eta bake
Herritar guziendako!
Bihar Herri huntan denentzat bozkario
Denek bizi behar baitute!

Ezagutzen ditugu bertzetaz baliatzen direnak
Bertzen izerdiz dituzte egiten aise ontasunak
Bainan lanik gabe dago hortxe gure auzo lehena
Barne oro ehailia: bihotz barneko iluna.

Gure herri askotan berexgoa sartu nagusi
Kanpotik ta barnetik batzuk daukute dena hautsi!
Jaunxkila batzu lan hortan ari baititugu ikusi
Herritarrak xutitzean joan dirare ihesi.

Lanbideak moztu nahiz baderamate ele zuri
Laguntzak oro emanez beren kideko horieri.
Bainan azkenez jendea ohartzen joko hits horrerri
Lantegiak berak sortuz esku emanez elgarri.

Guri hurbil hurbilean zabaltzen da mundu nasaia
Horren zoriontzen gaiten guziak bihotzez lehia:
Gure hurrek eta gaztek eder ukan dezen bizia...
Gizonaren helburua hortan sartzen da guzia...

(Pagola 1988: 42)

Auxtin Zamora (1943) poeta isila da. Ahots liriko sentsiblea entzunarazten du olerkiz olerki. Bizitzaren une iragankorrek harrapatu nahian bezala, sentimendu bat, gertakari natural bat, eguneroko jestu bat, anekdota irringarri bat betierekotu nahi du hitz hautatutan. Tartean, euskaltasuna eta herriaren gorabeherak ere aipatzen ditu. Testu laburrak dira, gehienetan, hitz urrikoak, neurtitz librean idatziak.

Biluziko naiz neure hitzez,
biluziko naiz neure olerkiez,
neure larru eta pentsamenez,
eta, lehenbiziko horma haizeak,
ñakatuko dauzkit,
hitzak eta olerkiak,
hilarrietako harrien itzalek
xirtxifikatuko,
larrua eta pentsamena,
eta
neure ixiltasun biluzgorritik,
ziuztatuko zauzkit,
itsutuki,
'izanaren izenen' xilkosokak.

(Zamora 1988: 59)



Henriette Aire (1943) poetak olerki bilduma bakarra plazaratu du, Egiaren egarritz, 1989an, baina hainbat testu argitaratu ditu *Maiatz* aldizkarian. Ez du merezi duen ezagupenik lortu, momentuko: aiantzia bezala da, beste gizonezkoak baino are gehiago. Bizkitartean, Ipar Euskal Herriko poesiara erakarri ditu hainbat gai berri, emaztearen ikuspuntutik, hala nola nork bere bidearen hautua egiteko eskubidea, gizartean onartua izateko zailtasuna, maitasunaren baitako sinesmena, konbenio sozial guzietz gain.

Haurraren aita da,
Zorionezko parabisu batean,
Maitasunaren baratzeko loreez,
Haurraren ama amultsuki,
Apaintzen duen gizona.

Haurraren aita da,
Eztitasunaren gozoaz inguratuz,
Maitasunaren sukarraz,
Haurraren amari bihotza
Berotzen dion gizona.

Haurraren aita da,
Bere besoen artean tinkatuz,
Bihotza bihotzaren ondoan,
Haurraren amari bizia bizi,
Sendiarazten dion gizona.

Haurraren aita da,
Besotetan amultsuki kulunkatuz,
Begietako nigar xortatukatzuz,
Amaren haurrari, maitasunaren loreak
Eskaintzen dizkion gizona.

...Eta ez,
Ezkontza sakratu,
Legezko batasunaren izenean,
Egin-bidea bete beharrez,
Nahi edo ez,
Mehatxuzko ondorioen beldurrez,
Emazteari bere gorputza
Ebasten dion gizona.

(Aire 1989: 19)

Izaki minduaren ahotsa dugu hautematen olerki horietan, fede kontsolatzailea hitzetan ezarri duenarena, zer gerta ere burua xut iraun nahi duenarena.

Egunak urteak
Kaska ta kaska
Fereka eta kaska
Odola ere dario
Orai xilopia bakoitzetik
Xortaka xortaka
Eta azkenean
Zure egiaren egarritz
Eta bakartasunean
Munduarentzat duzu
Zure harrian kokatu
Betiko
Hilgarri ez den
Bizia.

(Aire 1989: 41)



Beste errealismo mota bat adierazten digu **Daniel Landartek** (1946) bere poesian, hau da laurogeiko eta laurogeita hamarreko hamarkadetako arazo sozialak: etxe salmentak arrotzei, masa turismoa, lantegietako lan baldintza oldargarriak, abertzaleen kezka eta itxaropena etorkizunari begira.

Baina horra!
Nagusiek ez dituzte maite
Horrelako langileak.
Langile buru-argiak...
Zeren horrelakoak (oi gaixtoak!)
Horrelakoek baitituzte
Beste langileen kaskoak berotzen,
Sua pizten, saltsa muntatzen
Eta, eta... nagusiaren interesak
Arriskuan ezartzen!

Beraz, beraz,
Gauzak sobera sumintzera utzi aitzin,
Eta dirudunak beti errege egon daitezen...
Gaixo, gaixo, gaixo nagusi
Euskaldun fededun kartsuak,
Hau dela eta hura dela,
Dena estakuru-mestakuru
Eta bixtan da lantegiaren onerako:
Eta langile laguna
Kanpora igorri du!

Erranen didazue gero
Euskaldunen artean
Klase arazorik ez dela...
Hauxe bada gezur ustela!

(Landart, *Maiatz* 1984, 7: 34)

Daniel Landarten testu anitz ezagutarazi zituen Anje Duhaldek eta Mixel Ducauk, memoria kolektiboan luzarako txertatuz.

Gure lantegian eguzkirik ez
Ta langileok gaude herabez
Gure lantegian burrunba gaitza
Usain zikina ta lan bortitza
Gure lantegian tresnak dagotzi
Nausien orde z gure gidari.

(Landart, *Euskaldunak-Le peuple basque* 1975, 12: 6)

Baina Daniel Landart bada maitasun testu sortzailea ere, denok dakigun bezala, «Zure begiek»-ekin, Mikel Laboak betirako musikatu zuena.



Mayi Pelot (1947-2016) ezaguna da zientzia-fikziozko narrazioengatik, baina olerkiak ere idatzi zituen *Maiatz* aldizkarian. Bere kontaketen bezala, mundu arrunt berezia osatzen du testu poetikoetan ere, soinu, irudi eta erritmoekin jostatuz, irakurlea desbideratuz, ustekabeen harrituz. Sentimenduen eta giza-harremanen konplexutasunean sarrarazten gaitu, olerki sinbolista eta eruditoetan.

Gorputza liraina
urratsa arina
ile horail-nabarrak bizkarrean ixurtzen
dituen
neska hori
ni baino
eder azkarragoa zela
banekian
[...]
Orain mendira joatera
ez nauk atrebitzen
zuen gorputzen besarkaturik aurkitzeko
beldurrez.

Baitzekiat
ta bait dakik
neska hori
herioa
dela.

(Pelot, *Maiatz* 1988, 15: 28)

Jon Casenave (1957) gogora ekarri nahiko nuke hemen. Bi olerki bildumatan, maitasunaren gaia du nagusiki jorratzen, neurtitz librean eta lirika bereziarekin.

Baina DESIOA indar gotorra da...
Desioaren aintzurak iraultzen nau,
Beroak gorritzen
Ta mihia toteltzen zait,
Zirimolak, su emaile, aireatzen,
Uherdurak karaskoka, zarrasten gorapena!

Agian tenorez ito nauzu errezele trebea...

(Casenave 1978)



Aurelia Arkotxak (1953), poesia biziki landua eta jasoa proposatzen digu, bai *Maiatz* aldizkarian, bai *Atari ahanziak* bilduman, bai *Septentrio* liburu geopoetikoetan, bai *Hatsaren poesia* bildumetan. Hainbat irakurketak osatu irudimen kultua uztartzen du bere bizipen eta bidaiekin, olerki biziki original eta pertsonalak eskainiz.

Nausikaa

Marmol xurizko zutabeen artean
nindagon aspaldi zure esperoan
mila urte huntan gaztelu xurian
nindagon zure begi ibaiak gogoan

Bide bazterretako muga-harri gainean
nago gaur bakarrik haize latz basean
mila urte huntan bide-gurutzean
nago gaur zu gabe eremu hutsean

Zihoazen hedoiak
flamenko arrosak
pelikano argiak
ibis sakratuak

Zeramatzan urak
desira laranjak
lillura urdiñak
amets esmeraldak.

(Arkotxa 1993: 55)



2. Ahots batzuk gehiago

Xabier Soubelet (1953) eta Jakes Ahamendaburu (1961-2022) erakartzean, orain, erran daiteke bakoitzak bere intimitatearen baratzean sarrarazten gaituela. Soubeletek hizkuntza jostakinaren bidez testu pindartsu, zapartatzaile edo gogoetagarriak eskaintzen dizkigu, Ahamendaburuk barne bizi bakarti bezain aberats eta hunkigarrian barna eramaten gaituelarik.

Aipatzekoak ditugu ere, hemen, noizbehinkako poetak, edo isilka bizitzan zehar idatzi dutenak eta beren lana berriki baizik plazaratu ez dutenak: Manex Lanatua (Ahatsa, 1948), Txomin Heguy (1956), Joseba Aurkenerena (1956), Marikita Tambourin edo «Mari Amezttoi» (1946), Ttote Etxebeste (1960), Luixa Guilzu (1958).

Olerkari gazteenetan, hor ditugu Ur Apalategi (1972), olerki bilduma bakarraren sortzaile eta aspaldi narrazioari buruz itzuli dena, Eric Dicharry (1969), arte kontzeptuala garatzen duena eta sei liburu plazaratu dituena, Odon Noblia (1974).

Berrogeita bi urte hauetan diharduen *Maiatzetik*, antologia bat publikatu zuen Euskaltzaleen Biltzarrak (*Euskaltzaleen Biltzarra* 2016), baina aldizkariaren altxorak ez dira modu akademikoan nehoiz behar bezala aztertuak izan, ez eta hogeita sei urtez euskal poesiari (ez bakarrik Iparrekoari, baizik eta Euskal Herri osokoari, eta diasporakoari ere) arnas berri bat eskaini dioten *Hatsaren poesia* bilduma urtekarriak. Bi gune horietan, Ipar Euskal Herriko ondoko idazle hauen poesiak agertzen dira: Daniela Albizu, Arantxa Hirigoien, Patxika Etxalai, Pantxoa Etxegoin, Maite Deliaart, Alots Nesprias, Josiane Valencia, Jakes Lafitte, Graxi Solorzano, Xerar Urrutia, Txomin Heguy, Maddi Zubeldia, Peio Jorajuria, Luzien Etxezaharreta, Maialen Etxegoin, Nicole Etxart, Piarres Aintziart... eta beste batzuenak ere.



3. Ipar Euskal Herriko poesiaren norabideak

Panorama laster horren ondotik, ohartu gara ez dela, Ipar Euskal Herrian, olerki bildumarik publikatu duen berrogeita hamar urtez peko poetarik. *Hatsaren poesian*, olerkari berriak eta gazteak ikus daitezke, azken urteetan, baina kasik denak Hego Euskal Herrikoak dira. Batek dio, olerkigintzatik urrun, gazteek beste adierazpen bideak nahiago dituztela: adierazpen bide kolektiboagoak, plazan agertzen direnak, ikusgarritasun gehiago dutenak, gertakari sozial handiekin hertsikiago uztar daitezkeenak (poesia, hortaz, bertsogintza, kantagintza edo prosa poetikoa adierazpideekin lehia desorekatuan ikus daiteke). Ikuskizun-gizarteak horrela manaturik omen da, eta gazteak ez dirateke denetan izan, militantzia eraginkorrean eta poesia alorrean. Zehaztu behar da ere dugun poesia apurraren transmisioa nekez egiten dela, etxeetan zein eskoletan. Orduan, literatura idatziaren hautua egiten duten gazteek, «eskuak» «baratzean zikin[tzen]» dituzten bakar horiek, Amaiur Epherreren gisara (*Maiatz* 73, 2021eko azaroa: 80), euskal kultura osoan nagusitasuna hartu duen eleberrigintzari buruz itzultzen dira.

Hasierako galderara garamatza ohar mingarri horrek: non dago, egun, Ipar Euskal Herriko poesia? Desagertua ote da?

Gordea, bai, baina ez desagertua: poetak badaude, isil-isilean, xuhurki, errepoiki, baratxe-baratxe baldin badabiltza ere. Eta, beharrik, hor dugu Itxaro Borda, zoinen obra poetiko erraldoia aitzina badoan beti.

Desagertua? Beste bide batzuetatik joanki, bai, baina ez desagertua: beharbada onartu behar da poesia liburu eta aldizkari idatzietatik kanpo eramaten dutela belaunaldi gazteek, bertsogintzara edo kantagintzara, hastapenean erran bezala ez baitira horiek arlo bereizgarriak. Ezen «ez da bukatzen errimategia / ez dut eskola zaharra ukatzen» dio Ødei raplariak, «Ene lurretatik» kantuan (*Terapia* diskoan, 2022).

Onartzen badugu muga iragazgaitzik ez dela olerki idatzia, bertsogintza eta kantugintzaren artean, Ipar Euskal Herrian, hain murrizta den jendarte euskaldunaren baitan, ez daiteke erran poesia hiltzorian dela. Idatzizko arte eta intimitatean gozatzeko (idatzeko zein irakurtzeko) genero literario gisa, ez dabil osasun onean; baina beste forma batzuen bidez dirau, betiko rol salbatzaileekin: oldartu, kontsolatu, biziraun, esperantza eta zentzua eman, galdetu, eraiki.

“

Oldartu, kontsolatu, biziraun,
esperantza eta zentzua eman,
galdetu, eraiki.

”



Bibliografia

Ipar Euskal Herriko poesia

Ahamendaburu, Jakes (1988). *Isilka misilka*. Maiatz.
_____ (1990). *Gauean ontuts*. Maiatz.
Aire, Henriette (1989). *Egiaren egarritz*. Maiatz.
Apalategi, Ur (1995). *Erdi guneak*. Maiatz.
Arkotxa, Aurelia (1993). *Atari ahantziak*. Pamiela.
_____ (2001). *Septentrio*. Alberdania.
Aurkenereña, Joseba (2017). *Bideetan barna*. Amalur-Baita.
_____ (2022). *Larrun azpitik*. Booktegi.
Borda, Itxaro (1984). *Bizitza nola badoan*. Maiatz.
_____ (1986). *Krokodil bat daukat bihotzaren orde*. Susa.
_____ (1988). *Just Love*. Maiatz.
_____ (1991). *Bestaldean*. Susa.
_____ (1998). *Orain*. Susa.
_____ (2002). *Hautsak errautsa bezain*. Maiatz.
_____ (2007). *Noiztenka*. Maiatz.
_____ (2009). *Ogella line*. La Malle d'Aurore.
_____ (2012). *Medearen iratzartzea*. Maiatz.
_____ (2014). *Zure hatzaren ez galtzeko*. Elkar.
_____ (2020). *Abaro*. Balea Zuria.
_____ (2022). *Uhartearen mugetan*. Maiatz.
_____ (2024). *Itzalen tektonika*. Susa.
Casenave, Jon (1978). *Zutaz amoroski*. Ustela.
_____ (1985). *Ordu alferren segida*. Elkar.
Davant, Jean-Louis (1982). *Denboraren aroak*. BAK.
_____ (1985). *Nahi gabe*. CAM Pamplona.
_____ (1986). *Itsasoak iraultzan*. Maiatz.
_____ (1990). *Ihesi*. Maiatz.
_____ (2003). *Harri txintxolak*. Elkar.
_____ (2015). *Bidean kantaltsez*. Maiatz.
Dicharry, Eric (2012). *Hormatik hormaraino*. Maiatz.
_____ (2014). *After Banksy*. Maiatz.
_____ (2016). *Errudun*. Maiatz.
_____ (2018). *Duchampen inguma*. Pamiela.
_____ (2020). *Eros*. Pamiela.
_____ (2022). *Deus*. Pamiela.
Etxamendi, Eñaut (2013). *Kantu eta olerkiak*. Maiatz.
Etxebeste, Ttotte (2018). *Ezin erranezko hitzak*. Maiatz.
Erdozaintzi-Etxart, Manex (1978). *Hinki-hanka*. Elkar.
_____ (1985). *Herri honen erraietan*. Maiatz.
_____ (1994). *Bizitza pilpirak – Nafarroari poema irekia*. Maiatz.
_____ (2000). *XX. mendeko poesia kaierak*. Susa.
Euskaltzaleen Biltzarra (2016). *Maiatz-en bidean, 1982-1990*.
Hatsaren poesia bildumak.
Heguy, Txomin (1989). *Arteka marteka*. Maiatz.
_____ (2022). *Lur ilaunduan loreak*. Maiatz.
Iratzeder, Xabier (1940). *Zakalar*. Ezkila.
_____ (1945). *Jakes*. Baiona.
_____ (1947). *Pindar eta lanho*. Ezkila.
_____ (1951a). *Aphez*. Ezkila.
_____ (1951b). *Eguerri*. Ezkila.
_____ (1951c). *Ezkila eta tirola*. Ezkila.
_____ (1953a). *Ezkongai*. Ezkila.
_____ (1953b). *Mortuan oihu*. Ezkila.
_____ (1956). *Amen besta*. Ezkila.

_____ (1959). *Zeru-menditik (1941-1946)*. Ezkila.
_____ (1967). *Euskal Herria eta Yainkoaren gizaldia*. Ezkila.
_____ (1969). *Argiz argi*. Ezkila.
_____ (1972). *Uhaineri nausi*. Ezkila.
_____ (1977). *Fededunen arbasoa*. Leopoldo Zugaza.
_____ (1983). *Biziaren olerkia*. Gero.
_____ (2000). *XX. mendeko poesia kaierak*. Susa.
Itzaina, Mixel (1999). *Mixel Labeguerie, kantu berritzaile eta politika gizon*. Elkar.
Jorajuria, Peio (2008). *Uzkinazo luma*. Maiatz.
Lanata, Manex (1984). *Hegatz urratua*. Egilea editore.
_____ (1987). *Kilim. Okabeko gauak*. Maiatz.
Landart, Daniel (1968). *Hogoi urte. Goiztiri*. Maiatz.
Minaberri, Marijane (1965). *Xoria kantari*. Ikas.
_____ (2019). *Marijane Minaberriren meategitik*. Euskaltzaleen Biltzarra.
Mirande, Jon (1976). *Orhoituz*. Kriseilu.
_____ (1976). *Jon Mirandereren idazlan hautatuak*. Gero.
_____ (1984a). *Ene jainko-eidol zaharra, lur!* Elkar.
_____ (1984b). *Poemak 1950-1966*. Erein.
_____ (1992). *Ilhun-argiak*. EHU-UPV.
_____ (1999). *Obra osoa*. Hiria.
_____ (2002). *XX. mendeko poesia kaierak*. Susa.
Noblia, Odon (2009). *Ametza*. Maiatz.
_____ (2011). *Biziaren bideak*. Maiatz.
Pagola, Manex (1988). *Biziaren altzotik. 80 kantuen bilduma*. Baionako Euskal Erakustokiaren Adiskideak.
Peillen, Txomin (2003). *Mende joanazi*. Maiatz.
Pelot, Mayi (2019). *Olerki, ipuin eta eleberriak*. Maiatz.
Soubelet, Xabier (2009). *Bizil eta oldar*. Hiria.
_____ (2011). *Iza ote iza*. Maiatz.
_____ (2015). *Elektroxok*. Maiatz.
_____ (2017a). *Gazte olerkiak 1*. Amalur-Baita.
_____ (2017b). *Gazte olerkiak 2*. Amalur-Baita.
Tambourin, Marikita (2018). *Olerki bilduma*. Maiatz.
Xalbador (1969). *Ezin bertzean*. Auspoa.
_____ (1976). *Odolaren mintzoa*. Auspoa.
_____ (1981). *Herria gogoan*. Auspoa.
Zamora, Auxtin (1986). *Ezin errana*. Maiatz.
_____ (1988). *Hatsaren bustia*. Maiatz.
_____ (2002). *Trapuetan haizea*. Halsa Elkartea.
_____ (2009). *Zernahi izan eta ere*. Halsa Elkartea.

Aipaturiko beste erreferentziak

Gracq, Julien (1980). *En lisant, en écrivant*. José Corti.
Jaccottet, Philippe (2002). *Une constellation, tout près*. La Dogana.
_____ (2005). *D'autres astres, plus loin, épars*. La Dogana.
Kortazar, Jon, (zuz.) (2009). *Egungo euskal poesiaren historia*. EHU/UPV.
Ortiz Lopetegi, Agurtzane (2010).
Manex Erdozaintzi-Etxart, herriaren poeta. Elkar.



Harkaitz Cano

1975ean Lasarte-Orian sortua den poeta, nobela eta ipuingilea, besteak beste, euskal literaturako ahots garrantzitsuenetatik bat da. Hainbat sari ukan ditu eta munduko hizkuntza anitzetara itzuliak dira bere lanak. Bere azken obra Susan agertu da 2023an *Ulu egiteko bolondres bila* tituluarekin.

BAINA ZE TXORI

Txori gintezke,
baina ze txori, bada? Ze hegazti?
Arrano, mika, sorbeltz, enara?
Baxutik doa eta orbita herrena
da gure hegada.
Inon izatekotan haien antz postura,
akaso, moko nimiñoz makur errekek edan guran?
Txitoei jaten eman, galderak pausa,
erakuts eta seinala arriskuak: *Hau, Hori, Hura...*
Gure lana hor bukatu da.

Hileta batean, bart:
mikatza zen garagardoaren aparra
eta tenplutik at, eliza ondoko tabernan
edaten geratu naiz, bizitzari atxikia atzaparra,
loro zahar bat bere kakoan bezala.

Urrun usteko irlara heldu gabe,
lokatz gertuko zirrara.
Urreari errefus baina,
nahimenez zilarra.
Irisenez labur, borondatez nomada,
asfaltoan ahul, zeruan saldo beharra:
luma busti, hegaldi kamuts,
ttipiago bihurtzeko era da iparra.
Arrazoa emateko nire modua? Dardara.
Prest nago onartzeko eta agian hala da:
txori bagintezke, txori gara.

MEZULARIAK

Gaizkiulertu bati fermuki atxikiak.
Denbora eskuetan dutelakoan denborak
maneiatuak.
Txorimaloekin dantzatu ostean, fris-fras,
hatz arteko lasto izpiak jakan igurzten dituztenak.
Itxarongeletara sozializatzeraz doazenak.
Etxejabeen bilerara, lezioa ematera.
Beldurra harrokeriarekin moztortzen dutenak.
Izuaren lika dutenak bostekoan.
Mihiz atergabe, belarriz iragazgaitz.
Sorbalda karramarro-matxardaz harrapatu eta
“hau ziur gustatuko zaizula” esaten dizutenak.
Inor hil ez arren “saminean lagun”
esan beharko geniekeenak.

Haien alkandorek bizitza hartzen dute
soilik hedagian lehortzera jarritakoan.
Ozenegi hitz egiten dute,
azkarregi iraungitzen dira haien sekretuak.
Gaur eskaintzen digutenari atzo egin genion uko.
Ez mutil ez neska: gizonezkoak dira beti.
Haien listua zurixka da, zaharra eta salataria:
ahaztu dute herenegun ja
balentria bera kontatu zigutela.

Mandataria dira, tragikoki.
Badakite hala direla, baina ez
zein den haien mandatua.





Anjel Erro

1978an Iruñean sortu zen gaurko egunean poeta eta itzultzaile gisa ari den idazlea. *Eta harkadian ni* (2002) bildumarekin egin zuen literaturaren plaza-rako jauzia. Itzultzailea ere bada. Hamar urtez *Berrian* egun oroz zutabe bat idatzi zuen. Aurten publikatu du *Itzulpena-Traducción* izeneko liburua.

ETA, HALERE, ZAIN

Desira beti bera.
Argizko lumekin dut
ezagutzen,
moko motz kakotuaz.

Garai batean zuen
nire gogoan habia egina.
Elikatzen ninduen ahora
har eta zizareekin.

Orain bera da nire
gorputzaz elikatzen. Bizirik
nauka horretarako,
harkaitz bati lotuta,
barrenak agerian,
eta, halere, zain.

(*Itzulpena-Traducción*, 2024)

ERREPIKA, ERRITMOA, ERRITUA

*I find such beauty and calm in the repetition of
training – in its rhythms and rituals.*

Ian Thorpe.

Behar bezalako oda olinpiko bat
zor dizut aspaldidanik eta ez dut
ez denbora ez hitz egokirik inoiz.
Sidneyko kaleetan aurkitu zaituzte
zurea ez den auto edo etxe batean
sartu nahian. Albistegietan zabaldu dute,
izarraren gainbeheraz poza hartuta.
Hor ikusita jakin dut igerilekua
autismo zantzuak apaltzeko terapia
izan zenuela haurtzaroan, orain jakin dut
garaitua izan eta kirola utzi ondoren
lehiaketara itzuli zinela aurre egiteko
depresioari. “Egunik txarrenak”, esan duzu,
“egun normalak dira”.

Egun normalak
dira egunik txarrenak.

Honako hau ez da
oraindik zor dizudan olerkia, gogoragarria
baizik, poesia arimaren ariketa ere badela
ez ahanzteko, errepika, erritmoa, erritua
direla eder eta soseguan biltzen gaituztenak,
errepika, erritmoa, erritua ez ahanzteko.

(*Poema liburu bat –irakurtzeko jarraibideak–*, 2022)





Maddi Sarasua Laskarai

1995ean sortu itsasuarra bertsolari gisa ezaguna da gehienbat, baina 2024ko udaberrian, *Maiatz* argitaletxean *Biharraren hegietan* poema bilduma publikatu du. Euskal ikasketak eginik, soziolin-guistika ikasi zuen, kazetari lanetan aritu aitzin. Gasteizen bizi da eta gaur egun euskara eta literaturako irakasle da Bigarren Hezkuntzan.

GURE GAIN

Zer egingo dugu,
gauaren aurpegi zurbila
munduko bazter
guztietara
abaildu denean?

Langileek hotza dute,
kale izkinan zain,
esklabotzaren gorpila,
onenean ogi apur batzuk,
kateak birsortzeko lain.

Lehengo munduaren fosila
saldu zuten
ikuskizunaren ordain,
gizena gizen zedila,
gure begien bekain.

Aukerak ez zeuden mila
nahitaez hartu behar genuen
gure gain
abiatzea bila.

Eta han agertu zaigu
ortzia urratuz,
zaharrear lirain
biharko ederraren aieru
umila.

Goiza da orain.

EGIN BEHAR GENUENA

Hil ziren.
Eta ez genuen ezer egin.
Zer egin genezakeen bada?
Haiengandik 5000 kilometrotara,
gobernu anker hauen pean.

Joan gintezkeen, arma
eskuetan harturik haiekin
borrokatzera.
Okupa genitzakeen
governantza leku guztiak,
eta gau eta egun, hiltzen zituzten
bitartean
gu bertan bizi.
Atxilotuak bukatuko genukeen
baina atxilo egon gintezkeen
haiek hiltzen ziren bitartean.
Hitz egin genezakeen
hurbiltzen zitzaigun
edonorekin haietaz,
etengabe haietaz,
mundu osoa haietaz baizik
mintzatuko ez zen arte.

Elkarretaratze batzuk
egitea zen errazena,
kartelak eta pankartak kalean.
Baina bereziki txioak, txio asko
Idatzi ziren sarean.
Hil ziren.
Eta ez ginen joan armak harturik
haien ondora.
Hemen lan egin behar genuela
uste genuelako.
Luxenburgo irakurtzen genbiltzan
haiek hiltzen ari ziren bitartean.
Eta haienak huts egin balu
gure errua litzakeela ulertuko genuen.
Europako iraultza eza,
ekialdeko iraultzen kondena.
Mundu mailakoari mailan
munduko erantzun behar.

Lanean jarraitu genuen.
Antolatzen.


Baina hil ziren. Lore gorri bat paparrean,
Iraultza irria soinean.
Eta ea gu ere hiltzen garen
egin behar genuela uste genuena
egiten ari ginela.

Munduko Poesia Kaierak

2014an abiatu zuen Susa argitaletxeak MPK izeneko xede hau. Urtean lau liburuki plazaratzen dituzte, munduko poeten lanak irakurleari euskarara itzulirik oparitzeko. Halatan, poeta izen eta izan handiak aurkitzen ditugu gure hizkuntzara ekarririk. Beñat Sarasola irakasleak kudeatzen zuen saila, duela bi urte, eskuz aldatu zen eta dagoeneko Isabel Etxeberria eta Maialen Berasategi itzultzaileek daramate proiektua, hasierako baldintza beretan.

Itsasun egin den Irailekoak poesia jaialdian, Munduko Poesia Kaierak egitasmoaren 10. urteburua eta 50. alea ospatu dugu. Kari horretara, gurekin ibili dira hiru itzultzaile, Gaike Plazaren eta Elizaldearen arteko bidean, poesia hautatuak ozenarazten. Horiez gain, ekimenean parte hartu dute Itsasuko euskal elkarteetako kideek, AEKk, Ikastolak edo Irakurle Taldekoek hain zuzen ere.

Itsasuko herria leku ezin egokiagoa da poesiarentzat, munduko poesiarentzat bereziki. Eta bereziki literatura euskarara ekartzen duten itzultzaileak omentzeko.





Sergi Javaloyes

1951n Aljeriako Oranen sortu idazleak bere haurtzaroa eta bizi gehiena Nay aldean pasatu du. Bearnesa bertan ikasi zuen. *L'ora de partir* edo *Partitzeko tenorea* nobelarekin egin zen ezagun 1997an eta literaturaren alor asko jorratu ditu, itzulpena eta poesia bereziki. Luzaz Calendreta eskola elkartearen presidente izan zen. *L'homme est un ours qui a mal tourné* (2022) edo *Gaizki bihurtikatu den hartza da gizakia* izeneko bere azken eleberria frantsesez publikatu du In-8 argitaletxean.

Conferència sus 1000 ans de la literatura occitana tà l'Academia basca-Euskaltzaindia

Lo plan

La lenga occitana :

Ua lenga ua e diversa com todas las lenguas capvath lo monde; ua lenga donc pluridialectau dab maines dialectaus plan nomats : lo gascon, lo lengadocian, lo lemosin, l'auvernhat, lo provençau (dont lo nissart), lo vivaro-aupènc. Per venciva, la grafia establida per Loïs Alibert qu'ei uei lo dia ensenhada quasi pertot capvath Occitania en lo sistèma immersiu e a paritat orària pubklic e privat.

Los quate moments màgers de la literatura occitana

I. Lo gran sègle

I.1 1100-1213, lo trobar : los trobadors Guilhem IX d'Aquitània, Jaufre Rudel, princi de Blaia, e Marcabrun, lo gascon, qui escriut com los autes trobadors dab ua lenga normatizada, la Koinè occitana. La baishada deus Trobars : 1150-1170, Rambaut d'Aurenja, lo provençau qui hè nàisher lo « trobar ric », hèra aristocratic e espiritua. A l'Aquitània que s'ajustan las Corts d'Auvernha, deu baish Lengadòc e de la Provença rodaniana. Lo sègle deu combat (1209-1300). La Crotzada mau aperada "Crotzada contra los Albigés" de 1202-1204 puish de 1210 a 1212, la guèrra de conquista francesa que vad mei dura, mei eficaça. La batalha de Murèth de 1213, la des.hèita de l'Occitania.

Conférence sur 1000 ans de littérature occitane pour l'Euskaltzaindia

Le plan

La langue occitane :

Une langue une et diverse comme toutes les langues sur terre ; une langue donc pluri dialectale dont les dialectes sont bien identifiés : le gascon, le languedocien, le limousin, l'auvergnat, le provençal (dont lo nissart), le vivaro-alpin. En revanche, la graphie de la langue a été codifiée par Louis Alibert et est aujourd'hui pour 80 % du territoire occitan, enseignée dans le système immersif Calandreta et dans l'enseignement public et privé.

Les quatre moments essentiels de la littérature occitane

I. Le Grand siècle

I.1 1100-1213, "lo trobar " : les troubadours Guilhem IX d'Aquitaine, Jaufre Rudel, prince de Blaye, Marcabrun, le gascon, qui écrit comme les autres troubadours avec une langue normalisée, la Koinè occitane. Vient alors la lente décadence des Trobars : 1150-1170, Rambaut d'Orange, le provençal qui fait naître le « trobar riche », très aristocratique et spirituel. À l'Aquitaine s'ajoutent les Cours d'Auvergne, du bas Languedoc e de la Provence rhodanienne. Puis arrive le siècle du combat (1209-1300), face à la première Croisade de 1202-1204 puis celle de 1210 à 1212, la guerre de conquête française que devient plus dure, plus efficace. La bataille de Muret de 1213, signifie la défaite de l'Occitanie.

II. La prumèra renavida e los temps modèrnes

II.1. Los sègles XVI^{au} e XVII^{au} los pos de renavida

Bearn, un reiaume modèrne qu'ei de cap a hà's, en separàs deu Reiaume de França e en atirant la Gasconha (maridatges, las tèrras d'Armanhac, de Labrit, lo Roergue, lo país de Foish e lo Bearn que son amassats devath l'autoritat d'Enric de Labrit e de la hemna, Margalida. Qu'ei Joana de Labrit, vertadèra patriòta, mair de Enric III de Navavarra qui será l'eròia de la lenga occitana. Qu'ei sustot après la Sent Bertomieu, quan Enric de Navarra, escapat deu Louvre, qui's presenta en medish còp com rei de França e de Navarra. Qu'ei lo capdau de tots los occitans, la soa victòria qu'ei mei que mei occitana.

II.1.1. La Renavida gascona e provençau

Qu'ei ligada au protestantisme e la Cort de Navarra. Joana de Labrit que comanda en medish temps en 1568 ua traduccion en basc e en bearnés de *Navèth Testimòni*, e tanben la traduccion deus *Psalmes de Dàvid*, a Arnaut de Saleta, parescut en 1583 : lo bearnés qu'ei de segur la lenga oficiau deu reiaume de Navarra. Sustot, la version deus *Psalmes de Dàvid* de Pèir de Garròs qu'ei de hèit un còp de pericle, e la prumèra òbra de literatura occitana moderna.

La renavida provençau qu'ei demiada per Joan de Nostradama, Bellaud de bellaudière.

II.1.2. Au temps de Enric lo IV^{au} : patz e reconciliacion

En Gasconha, Bertran Larada, Guilhem Ader. A Tolosa, lo temps deu gran Godolin.

Au XVIII^{au} sègle, Jasmin, lo poèta reconegut peus reis e princis.

II. La première renaissance et los temps modernes

II.1. Les XVI^{ème} et XVII^{ème} siècles, les poussées de renaissance

Béarn, un royaume moderne qui se bâti e qui est à se séparer du Royaume de France en attirant la Gascogne (mariages aristocratiques et alliances avec les terres d'Armagnac, d'Albret, du Rouergue, le pays de Foix et le Béarn sont réunis sous l'autorité d'Henri d'Albret et de sa femme, Marguerite. C'est Jeanne d'Albret, véritable patriote, mère d'Henri III de Navarre, qui sera l'héroïne de la langue occitane. Surtout après la Saint Barthélémy, lorsque Henri de Navarre, évadé du Louvre, se présente en même temps comme roi de France et de Navarre. Il en effet le chef de tous les gascons et occitans, sa victoire est notablement occitane.

II.1.1. La Renaissance gasconne et provençale

Elle est liée au protestantisme et la Cour de Navarre. Jeanne d'Albret commande en même temps, en 1568, une traduction en basque et en béarnais du *Nouveau Testament*, et aussi la traduction des *Psalmes de David*, à Arnaud de Salette, paru en 1583 : le béarnais (dialecte de facto majoritaire en Gascogne et plus loin encore) est bien sûr la langue officielle du royaume de Navarre. La version des *Psalmes de David* de Pèir de Garròs est de facto un coup de tonnerre dans toute la Gascogne et l'Occitanie, c'est la première œuvre de littérature occitane moderne.

La renaissance provençale est essentiellement menée par Jean de Nostredame, et par Bellaud de Bellaudière.

II.1.2. Au temps d'Henri IV : paix et réconciliation

En Gascogne, Bertrand Larade, Guilhem Ader. À Toulouse, le temps du grand Godolin.

Au XVIII^{ème} siècle, Jasmin, le poète reconnu par les rois et princes.

“

Labriteko Joana, egiazko aberri zalea zena, izanen da okzitaniar hizkuntzaren heroina

”

III. Lo sègle XIX^{au} occitan

III.1. La pensada de la navèra renavida felibreana

— La politica felibreana, la naishença deu Felibritge en 1854. Frederic Mistral, la màger figura de la literatura occitana, prèmi Nobel de literatura en 1904 que n'ei dab 11 autes poètas l'iniator. Aqueth movement de renaishença literària que s'esplandeish lèu a d'autes país d'Occitania. En Bearn e Gasconha, Simin Paly e Miquèu de Camelat dab d'autes que crean L'Escòla Gaston Febus en 1896 e la revista *Reclams de Bearn e de Gasconha* en 1897 qui existish enqüera uei lo dia. Que n'estoi capredactor vint ans de seguida. Lo Felibritge que va perméter haut o baish a dar a la lenga occitana un navèth endom sociau, qu'ei tanben lo crusòu deu movement occitanista creat en 1944-1945 a Tolosa.

IV. L'Occitanisme

IV.1. la creacion de l'I.E.O. — Institut d'Estudis Occitans — en aost de 1944 a Tolosa, lo son president d'aunor qu'ei Tristan Tzara, lo son president Joan Cassou, escrivan, comissari de la Republica. Que serà lo lòc màger d'ua navèra generacion d'escrivans deus grans com Robèrt Lafont, Fèlix Castan, Joan Bodon, Max Allier, Bernat Manciet, Roger Lapassada, Albert Peyroutet e ua navèra generacion gessida a comptar de la fin de las annadas 1980 deu vielh sègle : Eric Gonzalès, Joan Loïs Lavit, Terèsa Pambrun, Joan Frederic Brun, Joan Claudi Forêt, Florian Vernet, lo vòste servidor, etc.

IV.2. L'I.E.O. que serà tanben lo crusòu de totes las accions màgers de l'occitanisme modèrne dont espelirà annadas annadas Calandeta (la prumèra a Pau, en 1979), l'ensenhament public bilingüe, etc.

66

Murgiltze ereduco lehen
Calandreta eskola
Pauen sortu zen 1979an

99

III. Le XIX^{ème} siècle occitan

III.1. La pensée de la nouvelle renaissance

— La politique félibréenne donnée avec la naissance du Félibrige en 1854, créé par Frédéric Mistral, l'immense figure de la littérature occitane, prix Nobel de littérature en 1904. Cette création se fait avec 11 autres poètes provençaux. Ce mouvement de renaissance essentiellement littéraire se veut, en même temps, opposé et miroir de la littérature française, en l'occurrence le romantisme français. Il se développe rapidement à l'ensemble des pays d'Occitanie. En Béarn et Gascogne, Simin Paly et Miquèu de Camelat, les écrivains majeurs de la première partie du XX^{ème} siècle avec bien d'autres gascons, créent l'Escòla Gaston Febus en 1896 e la revue *Reclams de Bearn e de Gasconha* en 1897, revue qui existe encore aujourd'hui. J'en fus, pour la petite histoire, son rédacteur en chef pendant vingt ans. Le Félibrige va permettre non sans mal de donner grâce à la littérature qu'elle produit, à la langue occitane un nouvel, il est aussi le creuset du mouvement occitaniste qui se dessine déjà au début des années 1920 avec la création de la revue *Òc* et de la Société d'Études Occitanes.

IV. L'Occitanisme

IV.1. La création de l'association l'I.E.O. — Institut d'Études Occitanes — en août de 1944 à Toulouse est plus que prépondérante. Son président d'honneur est Tristan Tzara ; son président Jean Cassou, écrivain, commissaire de la République. Il sera le lieu déterminant de la nouvelle génération d'écrivains majeurs comme Max Rouquette, Robert Lafont, Fèlix Castan, Jean Boudou, Max Allier, Roger Lapassade, Bernard Manciet les rejoint en 1955. En Béarn et Gascogne, Albert Peyroutet, Jean-Louis Baradat suivie de celle de la fin des années 1980 du vieux siècle : Éric Gonzalès, Jean-Louis Lavit, Thérèse Pambrun, Jean Frederic Brun, Jean Claude Forêt, Florian Vernet, votre humble conférencier, etc.

IV.2. L'I.E.O. sera aussi le creuset de toutes les actions et avancées majeures de l'occitanisme moderne et post-moderne d'où naîtra le mouvement Calandreta (la première fut créée à Pau, en 1979), l'enseignement public bilingue à parité horaire, les radios libres, la professionnalisation de structures associatives comme le CIRDÒC à Béziers, l'Institut Occitan d'Aquitaine, etc.

Aurelia Lassaca

(1983, Okzitania) Tarn eta Garona departamenduan sortua eta bizi den Aurelia Lassacak poesia idazten du okzitanieraz eta frantsesez. Literaturako bere doktore tesia eskaini dio okzitanieraren XVII. mendeko antzerkiari. Hainbat festibaletan parte hartu du munduan zehar. Musikari askoren laguntzaz agertzen da taula gainetan. Bere liburu gehienen edizio elebidunak Bruno Doucet etxean aurkitzen ahal dira, hala nola 2023an *Frontières/Mugak* izeneko antologia.



JOSEPHINE BACON, POETA INUARI

Ez zaitut bizkarrean eramaten ahalko
baina ezagutzen dut zure hatsaren sentzazioa
nire garondoan
eta zure irria nire belarrian
nagusiena da

Bere erraiez hustu gorputzari
otoitzak murmuratzen dizkiozu
hodeiak islatzen dira haren begi zabalduengan
berearekin zure arima elikatzeraz etorriko dela diozu

Ez zaitut bizkarrean eramaten ahalko
ezagutzen dut alta likenaren sentzazioa
nire oin pean
larruan odola egiten duten lili urdinak

Ez zaitut bizkarrean eramaten ahalko

Zenbat gustatuko litzaidekeen
nola nahiko nituzkeen
zure izter milenarioak nabaritu
haien presioa nire hezurren kontra
eta kontsonante latzezko eta bokale luzezko
zure hizkuntzan murmura zenitzake
zure lagun zenduen izenak
izarrak erakutsiz

Izpirituak arrain hezurren artean gordetzen direla
diozu
haien haragi boreala miazkatzen duzu
jatorri bila
eta diozu ez zarela oraino aski zuhurra

A JOSÉPHINE BACON, POETESSA INNUA

Non te poirai portar sur mon esquina
pr'aquò coneissi la sensation del teu buf
contra ma nuca
e ton rire a mon aureilha
es aquel dels ainats

Marmussas de pregàrias
a un còs esventrat
las nivols se miralhan sus son uèlh dubèrt
dises que vendrà noirir ton arma amb la sia

Non te poirai portar sur mon esquina
pr'aquò coneissi la sensation del liquèn
sus la sòla del pè
los blavets que fan de sang sus la pèl

Non te poirai portar sur mon esquina

Aimariái tant
voldriái tant
sentir tas cuèissas millenàrias
lor pression contra mos òsses
e marmussariás dins ta lenga
de las consonas rufas e de las vocalas longas
los noms de tos paures amics
en tot guinhar las estelas

Dises que los Esperits s'amagan
demest los òsses de las peisses
furgas lor carn boreala
en quista d'originas
e dises qu'ès pas encara pro sàvia

Ez zaitut bizkarrean eramaten ahalko
nahiko nuke alta
ez baitzaitut joaten utziko

Zure lasaitasuna errefusatzen dut
zure soaren urdina
erresakaren jarioan itotzen denean
arraunlariak eta kanoak zuk bakarrik asmatzen
dituzula oraino

Hirien gain alde handian gurutzatu gara elkar
ezagutu zaitut eta hitzak galdu ditut
zuretzat kantatu dut orduan
nire arbasoen hizkuntzan

Nire zaldi gainean eraman nahiko zintuzket
zu eta ni, zeruari are hurbilago
zure argitasunaren bila
nire soa altxatu beharra betiko errefusatzen
dudala

Nahi zaitut betirako nire lurrean

Danborren deiari elkor nago
betazalak josiko ditut
eta barkamena eskatzen dizudala oihu eginen dut
menturaz gehiegi maite zaitudala
ahula naizela
zure bihotza jotzen sentitu behar dudala bizitzeko

Ez zaitut bizkarrean eramaten ahal
nire ama zarelako
nire iturria zara
nire hatsa zara
otoitzak ezagutzen dituen
nire ahotsa zara

Nire gorputzak zurea bezatu dezala
Haren pisua nire bizkarrean
Eta noizbait haren absentsia
Zeruak bere izarrak arraitzen dituenean ez naute
gehiago
ilargirik gabeko gauek lotsatuko

zure irria ukanen dut nire ezpainetan
eta zure ahotsa nigan
zure arima nirearekin uztarrian.

Non te poirai portar sur mon esquina
voldriái pertant
que te daissarai pas partir

Refusi ta quietud
quand ton agach
se nega dins lo flus de la ressaca
ont pas que tu endevinhas encara de canoas e de
remaires

Nos sèm encontradas plan ensús de las vilas
t'ai reconeguda e ai perduts los mots
alara cantèri per tu
dins la lenga de mos aujòls

Te volriái prene sus mon caval
tu e ieu, un pauc mai prèp del cèl
ont refusi de jamai aver a levar la vista
en quista de ta beluga

Te vòli per sempre sus ma terra

Serai sorda a la crida dels tambors
me coserai las parpelas
e bramarai que te demandi pardon
que t'aimi saique tròp
que soi febla
qu'ai per viure besonh de sentir batre ton còr

Non te pòdi portar sus mon esquina
Qu'ès ma maire
Ma sorga
Mon buf
La votz
Que sap la pregàrias

Que mon còs aprivade ton còs
Son pes sus mon esquina
E un jorn son abséncia
Alara crentarai pus
Las nuèchs sens luna quand lo cèl exulta sas estelas

Aurai ton sorire sus mas labras
E ta votz en ieu
Ton arma cavilhada a la meuna.

ITURRI EGINGO NAIZ

Zure hitzen alor bazterrean
Iturri bat jazartzen da

Oroitzen al zara nola ikaratzen duen
Zure ezpainetan desagertzen denean?

Arren, zatoz,
Nire aldian iturri bilakatuko naiz

Berma zaitez nire aitzinean
Hurtzaroaren eguzkitan
Ondu
Zure larrua den
Jantzi bakarrarekin

Zatoz
Zure muturretatik
Nigan ibiltzera

Nire gela ilunean ongi hartuko zaitut
Zuk mendi gailurrak ikusi dituzuna
Zuk elurrak nola karraskatzen duen dakizuna
Itzul zaitez nire iturriaren
Iturburura
Pausa itzazu ezpainak eskotean
Lilura batez
Edanaraz zaitzadan.

ME FARAI SORGA

A la broa de tos mots
Sorgís una sorga

Te recòrdas coma tremola
Quora s'engorga entre tas labras ?

Ven cap a ieu
Me farai sorga a mon torn

Quilha-te
Amb per sol vestit
Ta pèl
Ruscada
Al solèlh de l'enfància

Ven
Me percórrer
De tas extremitats

T'aculhirai en ma cambra negra
Tu que vegères los soms de las montanhas
Tu que sabes coma crussís, la nèu
Puja cap a la naissença
De ma sorga
Pausa tas labras a l'ecavadura
Que t'abeure
D'un miratge.



CHAHINEZ

Chahinez
Zure izena ekialdetik altxatzen da
Eguzki errudun batekin

Chahinez
Nahiko nuke jende guziak
Zure izenaz oroit daitezen
Umezurtz guziak bil daitezen
Zure izena salmokatzeke
Sugarren artetik itzul zatzaizkigun
Antzinako jainkosa baten gisara
Eta uholdea
Mana ezazun

Nahiagoko nuen zure ezagutzarik ez egin, Chahinez
Zure izena nehoiz ez idatzi

Zu, dakizuna eta betidanik jakin duzuna
Erradazu Chahinez, beti berandu izango al da
Suak hiltzeko, ausikiak ekiditeko
Zure haurrak handitzen ikusteko
Haien maitatzeko eta bizitzeko?

Erradazu Chahinez, erradazu
Zure augurak itzuli ditzadan.

CHAHINEZ

Chahinez
Lo teu nom se lèva a l'Èst
Jos un solelh colpable

Chahinez
Voldriái que tote los òmes
Se recòrden del teu nom
Que totes los orfanèls s'acampen
Per saumejar lo teu nom
Que tòrnes d'entre las brasas
Coma una divessa antica
E qu'ordenèsses
Lo deluvi

Auriái tant aimat te pas conéisser, Chahinez
Jamai escriure lo teu nom

Tu que sabes e qu'as totjorn sabut
Diga-me Chahinez, serà totjorn trop tardièr
Per escantir los fuòcs, evitar las mossegadas
Veire créisser sos mainatges
Los aimar e viure ?

Diga-me, Chahinez, diga-me
Que pòsca revirar tos auguris.

2021eko maiatzaren 4a,
Chahinez, 31 urte, hiru haurren ama,
Bere senarrak imolatua, Merinhac-en.

Lo 4 de mai 2021
Chahinez, 31 ans, maire de très mainatges
Immolada pel seu marit a Merinhac.



ORFEOREN AMETSA

Gizakiak itzalak baizik ez diren

Infernuetan

Itzal egingo naiz zure gorputzaren barnean.

Hondarezko ziutateak eraikiko ditut

Itzultzen ez garen ibaia agortzeko

Gure begiek ikus ezin dituzte dorreetan
dantzatuko dugu

Gezurak erraten ez dakien zure mingain ebakia
izanen naiz

Eta galdu gaituen maitasuna madarikatuko dugu.

LO SÒMI D'ORFÈU

Dins los infèrns que los òmes

Son pas mai que d'ombras,

Me farai ombra al dedins de ton còs.

Bastirai de ciutats de sabla

Qu'agotaràn lo flum que degun ne tòrna.

Dansarem sus de torres que nòstres uèlhs
veirà pas.

Serai ta lenga trencada que sap pas mentir.

E maudirem l'amor que nos a perduts.

EURIDIZIOREN AMETSA

Hautsez estaliko ditugun ildo berriak irekiko
ditugu.

Ahantzura ekartzen duen haizea hiltzen ikusiko
dugu.

Ni baino pobreago bati ebatsi sagarrak ukanen
ditut sakelan.

Ezpatekin bipilduko ditugu.

Eta gure ametsen hondarrekin

Beste batzuk eraikiko ditugu

Suez eta soaren mugez

Haraindian.

LO SÒMI D'EURIDÍCIA

Cavarem d'autras regas que cobrirem de cendre.
Veirem morir lo vent carrejaire d'oblit.

Aurai de pomas dins ma pòcha raubadas a mai
paure que ieu.

Las pelarem amb d'espasas.

E amb çò que sòbra de nòstres sòmis

Ne bastirem mai

Delà los fuòcs

E la termièra de l'agach.



Christine Etchevers


(1953) Baionan sortu eta Kanbon bizi den artista tindatzailea da. Paueko eta Bordeleko Unibertsitateko Arte Ederretako fakultatean ikasi zuen. Bakarkako ala taldekako erakusketetan parte hartzen du 1978az geroztik. Sari asko ukan ditu bere arte-ibileran zehar. Liburu ilustratzaile eta azalegile gisa ere ezaguna da eta gogoan dugu Durangoko Azokaren 51. edizioaren afixa margotu zuela.



**Pantxix
Bidart**



**Alidé
Sans**



**Coralie
Nazabal**



**Maddi Oihenart
Jérémie Garat**



ANTOLATZAILEA:

BABESLEAK:

LAGUNTZAILEA:



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



Euskararen
erakunde
publikoa
Office public de
la langue basque



EUSKAL KULTUR
ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL
BASQUE



ITSASU
HERRIKO ETXEA